Hernaniko Udala
UDALTZAINGOA

HERNANIKO UDALTZAINGOARENTZAT IBILGALU MISTO BERRI BAT HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.-KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea , patruila-ibilgailu misto berri bat (ez erabilia) erostea izango da, preskipzio teknikoen pleguko zehaztapenarekin bat etorriz, Hernaniko Udaleko Udaltzaingoarentzat.

Udaltzaingoaren ibilgailu berriaren hornidura kontratuaren espedientea 2026ko urtarrilaren 28an argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 12an bukatu zen. Eskaintzak aurkezteko epea bukatu da eta ez da lizitatzailerik aurkeztu. Horrela, inor aurkeztu ez denez, ezin du aurrera jo prozedura honek.

Emaitza honen ostean, lizitazio negoziatu bat osatzeko izapideekin hasi gara. Hala, negoziatu honetara aurkezteko asmorik duen enpresa batekin egin dugu topo. Negoziatu honetan, ez da baldintza teknikoek zehazten duten atalik negoziatuko. Lizitarioaren zenbateko ekonomikoa izan daiteke bakarra, kontuan izanik enpresa batek egindako eskaintzak baldintza teknikoak betetzen dituela eta zehaztutako aurrekontuaren azpitik egiteko proposamena bideratu nahi duela.

Hala ikusita, lizitazio negoziatu berria martxan jartzeko izapide guztiak osatzeko eskaera luzatzen dizuet.

2.- IBILGAILUAREN EZAUGARRI OROKORRAK

2.1. PATRUILA AUTOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

<u>Ibilgailu mota : turismo-furgoi mistoa</u>

- 100g/kmko gas emisioa gaindituko ez duen motorra. Euro6 europar legeriak exijitzen duen baldintzak bete beharko ditu ihes-hoditik irteten den CO_2 isuriak.

- Erregai hibrido ez entxufagarria eta energia sistema bikoitza, motorizazio bikoitza (gasolinazko termikoa eta elektrikoa), beti ere %100 trakzio elektrikoa duen kapazitatea bermatuz (ez soilik martxan jartzerakoa). Bateriak ibilgailuaren desazelerazio eta frenatze sistemarekin kargatuko dira. Baita ere, gasolina eta gasoil motorrak dizuzten ibilgailuak.

- Herriko kaleetan ibiliko direnez gehienbat eta honenbestez abiadura txikian, modu elektrikoa lehenetsiko da eta eztanda-motorra aurrekoaren laguntzailea izango da, motor elektrikoaren nekea edo indar gehiagoren beharra izatean.

- Eserleku kopurua: bost

- Ate kopurua, bost

- Potentzia : 100 CV-koa edo handiagoa.

- Abiadura kaxa: automatikoa, CVT (transmisio etengabe aldakorra).

Ibilgailuen deskribapen xehatua jasotzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko da esleipenen lehiaketa publikora.

KARROZERIA ETA EKIPAMENDUA

- Neurriak gutxigorabehera:

  Luzera: 4,3 metro
  Zabalera: 1,75 metro
  Altuera: 1,5 metro

- Direkzioa: lagundurikoa
- Itxiera bateratua
- Kristal jasogailua: elektrikoak aurreko ateetan eta atzekoetan, atzekoak blokeatzeko aukera dutenak.
- Ate guztiak blokeatzeko sistema gidariaren postutik
- Haize eta euri sentsoreak
- Aire egokitua, klimatizagailua edo antzekoa.
- Kristal antitermikoak.
- Pintura: ibilgailuak zuriak izan behar du.
- Aurrealdeko eserlekuak bizkarralde inklinatua eta buru euskarria izan behar dute, eta gidariaren eserlekuaren altuerak egokitzekoa izan behar du.
- Erregai tangaren tapoia, giltzaz irekitzen dena edo barrutik irekitzen dena.
- Altueran eta sakoneran egokitu daitekeen bolantea
- Atzerako ispilu elektrikoa, termikoak eta biltzen direnak
- 17 hazbeteko aleaziozko hagunak
- Aurretik tenkatzeko segurtasun uhalak
- Maletategiareen gutxieneko edukiera 600 litrokoa
- Bluetooh esku libreen sistema
- Lainoen aurkako auto-argiak
- Ibilgailuak ez du izan behar ez irrati arruntik ez CD irakurgailurik

GUTXIENEKO SEGURTASUN EKIPAMENDUA

- Balaztatze sistema. Ez blokeatzeko sistema edo antzekoa
- Trakzio eta egonkortasun kontroleko sistema
- Talka eta oinezkoen detekzio sistema
- Aurrealdeko airbag sistema

Ibilgailuen deskribapen xehatua jasotzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko da esleipenen lehiaketa publikora

2.2 IBILGAILUAREN BARRUKO/KANPOKO GUTXIENEKO EKIPAMENDUA

- Aurreko konpartimenduko eserlekuak bizkar aldearen inklinazioarekin eta buru-euskarriekin egingo dira, eta gidariaren eserlekua altueran erregulatu ahal izango da.
- Gomazko alfonbratxoak ibilgailuaren aurrealdean eta atzealdean
- Altueran eta sakoneran erregulagarria den pasabidea
- Barrutik erregulatu daitezkeen atzerako ispiluak, elektrikoak eta termikoak
- Luneta termikoa
- Klimatizatzailea

2.3 EZAUGARRI TEKNIKO ESPEZIFIKOAK

- Ibilgailua egindako IATarekin entregatuko da
- Ibilgailua zuria izango da

3.BERME-EPEA

Gutxieneko 3 urteko berme-epea ezartzen da, km-ko mugarik gabe, harrera-aktaren datatik zenbatzen hasita. Berme hori gainditu dezake esleipendunak eskaintzan duenak.

Berme-epean egiaztatzen bada egindako ondasunetan akatsak daudela , administrazioak eskubidea izango du kontratistari erreklamatzeko egokiak ez diren ondasunak birjar ditzala.

Bermearen barruan sartzen dira matxurak konpontzea, eskulana, materialak, joan-etorriak eta ezinbestekoak diren gainerako gastuak, salbu eta frogatzen bada horien jatorria udal-zerbitzuek ekipamendua gaizki erabiltzeagatik sortu dela edo zerbitzu horiei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik sortu direla.

Aurreko apartatuetan xedatutakoari eta kontratistak berme-epeari buruz ezar ditzakeen hobekuntzei kalterik egin gabe, ondasunak entregatu zirenetik urtebete igaro bada kontratistak erantzukizuna izango du egindako ondasunekin bat ez etortzeagatik,1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duenak jasotako baldintzetan.

4. ENTREGATZEKO MODUA ETA EPEA

Esleipendunak 35 eguneko epea du ibilgailua plegu honetan jasotako baldintzetan entregatzeko. Epe horretan edozein aldaketa egitek, dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da, bai eta kontratazio-organoaren berariazko baimena ere.

Baldintza horiek ez betetzeak ahalmena emango dio kontratazio-organoari kontratua aldez aurretik suntsiarazteko eta errebokatzeko.

5. INSTRUKZIO, FUNTZIONAMENDU ETA MANTENTZE LIBURUAK

Elementu guztiek indarrean dagoen legeria bete beharko dute, bai ibilgailuetan jartzean bete beharreko homologazioaren aldetik, bai poliziaren ohiko ekipamenduan duten kokapenaren aldetik, eta indarrean dagoen legerian zehazturiko funtzionamendu eta irisgarritasun baldintzak ere bete beharko dituzte.

Jasotzean, esleipendunak, ibilgailuaren beraren dokumentazioaz gain, ibilgailuaren eta haren osagarrien dokumentazio teknikoa aurkeztuko du, bermeak eta mantentze orriak barne.
Ibilgailuaren lehen 10 urteetan egitea gomendatzen den mantentze-plana jasotzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko da, azterketa bakoitzaren eragiketak zehaztuta.
Dokumentu horiek aurkeztu ezean, ez da harrera-akta formalizatuko.

Hernaniko Udala
UDALTZAINGOA

6. ZERBITZU TEKNIKOA
Esleipendunak zerbitzu ofiziala izan beharko du Hernantik gehienez ere 20 km-ra.

7. NAHITAEZKO ASEGURUA
Asegurua kontratatzea Hernaniko Udalari dagokio, eta horretarako egin beharreko kudeaketak egingo ditu.

8. ZIRKULAZIO BAIMENA ETA BESTELAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA
Esleipendunak automobila Hernaniko Udalaren izenean entregatu beharko du, dagokion zirkulazo baimenarekin, baita beharrezko dokumentazio teknikoa ere. Ibilgailua matrikulatuta entregatuko da.

040G0001
Firmado digitalmente por 040G0001
Fecha: 2026.08.27 07:44:20 +02'00'

Udaltzaingoko ofiziala